

# 1. BALIO PROPOSAMENA

## Aurkezpena

Imagina ezazu ordenagailu bat oparitu dizutela eta telebistara konektatu nahi duzula. Seguruenik, etxean milaka kable izango dituzu, eta gehiengoa ez duzu ezta zertarako balio duen ere jakingo. Beraz, zein erabili? Nola konektatu? Zein webgunean bilatuko ote duzu informazio guzti hori?! Gure zerbitzuak behar horiek asetzen ditu. Behar dituzun bi konexioak, kablearen luzera eta kablearen bestelako ezaugarriak aurkitzen dizkizu. Eta hori gutxi balitz, prezio hoberenean saltzen diren online dendak zein fisikoak (google maps-en integratuak) azaltzen dira, erosi nahiko bazenu.

- **Web orriaren diseinua:**

- Garbia eta ulergarria.
- Erabiltzailearekin interaktiboa, galderak zuzenak eta zehatzak planteatuz. Modu horretan filtro nahasgarriak eta ..... saihesten dira.
- Aukeratutako elementuak orriaren eskuinean doaz, era argi batean pilatuz, geroago aldaketak egin behar badira.
- Diseinu responsiboa. iPhone, Android, Windows Phone eta bestelako plataforma eta diapositibetan ondo moldatzeko eta integratzeko.
- Kolore zuriak eta gris oso argiak. Gure enpresa kolorearekin (urdina) izenburu garrantzitsuak eta arreta deitzeko guneak koloreztatuko ditugu.
- Agertzen den informazioa ez da gehiegi izango, bestela erabiltzaileak informazio irrelebante gehiegi izango du. Produktuen datu teknikoak era argian eta mundu guztiak (adituek nahiz erabiltzaile mailakoek) ulertu dezan azalduko dira.
- Galdera interaktiboak bezeroari zuzenean egingo zaizkie, txartel handien bidez (ia pantaila osoa okupatzen dutelarik). Botoiak handiak izango dira.
- Galdera interaktiboek filtro erosoan antzera funtzionatuko dute, kategorია generiko eta espezifikotan azalduz.



## Zerk bereizten gaitu beste enpresetatik?

Gure ideia berria da merkatuan, arazo erreala konpontzen du ez dagoelako gu bezalako orri espezializaturik. Egunero erabiltzen ditugu ordenagailuak, telebista, mugikorrak... eta sarritan haien artean konektatzeko beharra dugu, baina beti arazo bera agertzen zaigu: dispositiboak konektatzeko kableak ez ditugula aurkitzen.

- **Berritasuna.** Interneten ez dago kableetan oinarrituta dagoen web-orririk.
- **Prestazioak.** Bilaketa pertsonalizatua eta prezio hoberenen denden eskaintzak.
- **Pertsonalizazioa.** Pertsona bakoitzak bere Etorkizun batean bezeroek pertsonalki eskatutako kableak diseinatu, fabrikatu eta saldu egingo genituzke.
- **Marka.** D'addario, lusa eta Esalco bezalako markekin egingo genuke lan, gure web orriaren bitartez marka horietako kableak saltzen dituzten online-denda eta denda fisikoak eskaintzen.
- **Prezioa.** Prezioen konparaketa egiten dugu eta bakarrik merkeenak aukeratzen ditugu bai denda fisikoetan bai online dendatan.
- **Segurtasuna.** Gure enpresak bermatzen du gure web-orriaren bitartez bilatutako kableak saltzen dituzten dendak guztiz konfiantzazkoak direla, beti esperientzia propioz hitz egiten.
- **Erabilgarritasuna.** Bezeroei lana erraztuko genieke zein kable behar duten eta non erosi jakiten.
- **Erabilerraztasuna.** Eskaintzen dugun zerbitzua ulerterraza eta azkarra izango da, bezeroei ez die denbora asko hartuko behar dutena bilatzea.
- **Eskuragarritasuna.** Gure web orrialdean online denda guztien link-ak egongo dira eta denda fisiko guztiak google mapsen kokapena erraztuko dugu.